

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK JASAN
DITUZTEN EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO ARRETA
HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOA
APLIKATZEKO NEURRIAK (2007)

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko Erakundeen Arteko Akordioa hedatzeko eta aplikatzeko neurriak biltzen dira jarraian, erakundeek 2007an abian jartzea aurreikusitakoak. Aipaturiko Akordioa 2001eko urriaren 18an sinatu zuten¹. Honako dokumentu hau 2007ko maiatzaren 23an onartu zuen Jarraipen Batzordeak, eta bertan jasotako neurriak Akordian parte hartzen duten erakundeen arabera daude banatuta.

1. EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA

- 1.1. Gaiak horrela eskatzen duenean, lehendakariak emakumeen aurkako indarkeriaren eta erakundeen arteko akordioaren inguruko aipamen eta erreferentzia esplizituak egitea jendaurrean hitz egitean.
- 1.2. Etxeko tratu txarren balizko biktimei zuzendutako materiala hainbat euskarritan prestatzen eta hedatzen parte hartzea. Helburua biktimek zer egin eta nora joan jakitea da, baita segurtasun-neurrien inguruko informazioa ematea ere.
- 1.3. Beste erakunde batzuek akordioarekin lotuta antolatzen dituzten heziketa eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak...).
- 1.4. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina diseinatzen, finantzatzen eta hedatzen parte hartzea. Kanpainaren helburua emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean konpromiso politiko, sozial eta pertsonal handiagoa lortzea izango da.
- 1.5. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei aurre egiteko jokaera protokoloa betetzea. Horretarako, Lehendakaritzaren ordezkari batek biktimaren herriko udalak deitutako gaitzespen-ekitaldietan parte hartuko du. Era berean, dagokion beste edozein arbuio-ekitalditan ere parte hartuko du Lehendakaritzak, gainontzeko erakundeekin elkarlanean.

2. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

- 2.1. Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan abian jarritako sentsibilizazio jardueretan parte hartzea.
- 2.2. Herritarren artean genero-indarkeriarekin lotutako arazoak ezagutaraztea, baita Euskal Herriko egungo egoera eta bilakaera ere. Horretarako, informazio estatistikoa hedatuko da Herrizaingo Sailaren prentsa-zerbitzuaren bitartez.

¹ Fiskaltzari, Legekarien Euskal Kontseiluari eta Euskal Kontseilu Medikuari dagozkien neurriak ez dira dokumentuan jaso, ez baitituzte Jarraipen Batzordearen Idazkaritzara bidali.

- 2.3. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzen kasuan, erakundeen erantzun-protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 2.4. Ertzaintzak ezagututako arau-hausteetatik abiatuta, etxeko indarkeriako edota askatasun sexualaren aurkako delituak egin dituztenei buruzko aldagai estatistikoak aplikatzen jarraitzea.
- 2.5. Etxeko indarkeriarekin edota sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako arau-hauste penalen biktimen estatistika bidaltzea Emakunderi sei hilabetetik behin (urtarrila eta uztaila) eta urtero (urtarrila). Ertzaintzak ezagututako datuetatik abiatuta egin behar da estatistika eta aurreko epeko datu konparatiboak ere jaso behar ditu.
- 2.6. Delituak gertatzen diren lekuen tipologiari buruzko analisi estatistikoa egin ahal izateko lanak hastea eta arau-haustek gertatzen diren leku publikoak arretaz ikertzea.
- 2.7. Ertzaintzaren *Harlax* aldizkari teknikoan emakumeen aurkako indarkeriarekin eta gizonezkoen zein emakumezkoen arteko berdintasunarekin lotutako beste gai batzuk sartzea. Era berean, ertzainek genero-indarkeriarekin lotutako arazoan ahalik eta ezagutza handiena izatea sustatzea *Ertzaintza Gaur* aldizkari korporatiboaren bidez.
- 2.8. Ertzaintza trebatzeko programan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, garaiz antzemateko eta aurre egiteko prestakuntza era egonkorrean eta derrigorrean sartzea.
- 2.9. Gizarte-zerbitzuetako, Ertzaintzako eta hezkuntzako profesionalek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza espezializatua jasotzea, indarkeria-zikloa goiz antzemateko eta indarkeria fisikoa zein autoindarkeria prebenitzeko.
- 2.10. Etxeko indarkeriaren edota genero-indarkeriaren biktimak era iraunkorrean babesteko 2003an hasitako programa aplikatzen jarraitzea.
- 2.11. Tratu Txarren Fiskaltzarekin etxeko indarkeriaren edota genero-indarkeriaren kasuistikari buruz lanean jarraitzea.
- 2.12. Kalitatea kudeatzeko sistema txertatzeari dagokionez:
 - Ertzainek eskura dituzten baliabide guztien berri emango diete tratu txarrak jaso dituzten emakumeei. Era berean, autobabesteko neurriei buruzko informazioa jasotzeko aukera emango diete ikus-entzunezko materiala erabilita eta informazio liburuxka bat emanda.
 - Tratu txarren salaketa baten arabera ustezko erasotzailea den edozein gizoni, bere jokabidea mantenduz gero izango dituen ondorio penalak ezagutaraziko zaizkio, baita gizarte zerbitzuek erasotzaileen jokaera aldatzen laguntzeko dituzten programak ere.

- 2.13. Etxeko indarkeriaren edo/eta genero-indarkeriaren aurkako tokian tokiko protokoloak lantzen laguntzea poliziaren esku-hartzearen eremuan.
- 2.14. Administrazioak edo herri-eragileek herritarrak genero-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko antolatzen dituzten jardunaldietan parte hartzea.
- 2.15. Etxeko indarkeriaren edota genero-indarkeriaren biktimek jasaten duten arrisku-egoera baloratzeko tresna abian jartzea. Horrela, arrisku-maila ezberdinak eta kasu bakoitzari dagozkion babes-neurri polizialak aplikatu ahal izango dira.

3. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- 3.1. Etxeko tratu txarren biktimei harrera egiteko baliabideen inguruko dekretu arautzailea argitaratzea.
- 3.2. Zuzeneko ekintza deklaratzeko eta beharrezko izapideak hasteko etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeei eta behar bereziak dituztenei arreta emateko zentro esperimentalak sortzeko.
- 3.3. Diru-laguntzetan lehentasuna ematea genero-indarkeria jasan duten emakumeei arreta eta laguntza emateko gizarte-egitasmoak.
- 3.4. Emakumeen eta euren seme-alaben aurkako indarkeria, nerabeen bortizkeriazko jokabideak eta prostituzioaren eremuan gertatzen den indarkeria sexista prebenitzeko proiektuei lehentasuna ematea proiektu esperimentalei buruzko diru-laguntzetan.
- 3.5. Diru-laguntzetan lehentasuna ematea gizarte-zerbitzuetako profesionalei zuzendutako genero-indarkeriako heziketa-ikastaroei.
- 3.6. Udalei eta mankomunitateei diru-laguntzak ematea, etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei aurre egiteko tokian tokiko protokoloak gara ditzaten.
- 3.7. Emakume etorkinei zuzendutako *Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean zer egin* liburuxka eguneratua berriz banatzea edota liburuxka berrargitaratzea.
- 3.8. Interkulturalitateari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza ematea oinarritzeko gizarte zerbitzuetako langileei.
- 3.9. Emakunderekin elkarlanean aritzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko sentsibilizazio-kanpainetan.
- 3.10. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 3.11. Gizarte-zerbitzuetan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartzen jarraitzea.

- 3.12. Akordioaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitzea, baita Erakundeen Arteko Talde Teknikoan eta Gizarte Zerbitzuetako Azpibatzerdean ere.

4. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- 4.1. Genero-indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari buruzko batzarra antolatzea, Euskadin aplikatzen ari diren politika eta ekimen nagusien hedapena errazteko, baita politika horiek diseinatzen, kudeatzen eta exekutatzen dituztenen arteko eztabaida eta esperientzia-trukaketa laguntzeko ere. Azken helburua, erakundeek genero-indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetzea da.
- 4.2. Lurralde historiko bakoitzak hiru hilean behin egitea genero-indarkeriaren aurrean babes integrala emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren jarraipena. Protokoloa 2005ean izenpetu zuten Gobernu Aretoko ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu idazkariak, probintzia auzitegiek, epaile dekanoeak, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoeak, profesionalen elkargoek, gizarte zerbitzuek, Berdintasunerako Erakundeak eta Justizia Sailak.
- 4.3. Justizia Administrazioaren Euskal Behatokian lantalde iraunkorra sortzea, emakumearen aurkako indarkeri kasuez arduratzen diren EAEko epaitegietako datuen bilakaera aztertzeke, ondorioak ateratzeko eta jokaerari buruzko proposamen zehatzak egiteko.
- 4.4. Beste elkarte batzuek antolatutako heziketa-jardueretan parte hartzea.
- 4.5. Prestakuntza-ikastaro espezifikoak antolatzea Epailentzarentzat, Idazkaritza Judizialarentzat eta Fiskaltzarentzat, genero-indarkeriari eta 1/2004 Legearen ezarpen praktikoari buruz.
- 4.6. Lurralde historiko bakoitzean Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bana antolatzea abokatuarentzat.
- 4.7. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduen hiru koordinazio-zentroen baliabide informatikoak hobetzea. Horrela, hobeto kudeatu ahal izango dira babesteko aginduak eta kautelazko edota segurtasunezko neurriak jasotzen dituzten mota guztietako ebazpen judizialak.
- 4.8. Organo judizialetatik Babes Aginduen Erregistro Zentralera telematikoki igorritako babes-aginduen eraginkortasunaren jarraipena egitea, uneoro eguneratuta daudela ziurtatzeko.

- 4.9. Genero-indarkeriarekin, etxeko indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako *www.justizia.net* webguneko edukiak eguneratzea eta hobetzea, biktimei zein gainontzeko eragileei informazio zehatza emateko.
- 4.10. Emakumeen aurkako indarkeria-auzitegi eskusiboak sortzea bultzatzea, beharrezkoa den kasuetan.
- 4.11. Gizarte-zerbitzuekin koordinazioa areagotzea, biktimei arreta hobea bermatzeko.
- 4.12. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 4.13. Babesteko aginduen koordinazio-zentroek eta biktimei arreta emateko zerbitzuek dituzten funtzioak berriro definitzea. Gainontzeko eragileekin koordinazioa areagotzea Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Integrala emateko Neurrien Legearen eraginkortasunerako koordinazio-protokoloen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eremuan.
- 4.14. Erakundeen arteko akordioan aurreikusitako batzordeetan eta azpibatzerietan parte hartzea.
- 4.15. 2006ko abenduaren 15ean Genero Indarkeriaren Sentsibilizazio eta Prebentzio Plan Nazionala onartu zenetik, Justizia Ministerioak eta autonomia erkidegoek osatutako batzorde teknikoetan parte hartzea, genero-indarkeriako epaitegietako eragile juridikoak hezteko ikastaroetarako irizpide komunak ezartzeko.
- 4.16. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen bitartez, erakundeen arteko akordioa ezagutarazten jarraitzea ikastaroetan, hitzaldietan, jardunaldietan...
- 4.17. Unibertsitateko curriculumaren barruan genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruzko mintegiak mantentzea, eta ikasgai horiek azterketetan ebaluatzea (Medikuntza Fakultatea, Lege Medikuntza ikasgaia).
- 4.18. Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak jokaera-protokoloa baloratuko du agresioak eta sexu-erasoak izaten direnean. Horretarako, Osasun Sailarekin jarriko da harremanetan, protokoloa aplikatzean izan litezkeen balizko arazoengatik inguruko informazioa jasotzeko eta horiek hobetzeko bitartekoak jartzeko.
- 4.19. Jarraipen Batzordean genero-indarkeriaren edota sexu-erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko eta ofiziozko txanda ezartzeko akordioa ebaluatzea. Legekarien Euskal Kontseiluarekin izenpetutako akordioak izan ditzakeen arazoak zuzentzea eta beharrezko hobekuntzak ezartzea da helburua.
- 4.20. Biktimei zuzendutako arreta-zerbitzuek funtzionatzeko dituzten metodoak ebaluatzen jarraitzea, hutsuneak antzemateko eta hobekuntzak ezartzeko.
- 4.21. Biktimei laguntzeko zerbitzuen prestazioak areagotzea, garaiz esku hartzea sustatzeko.

- 4.22. Genero Indarkeriaren Aurrean Babes Integrala Emateko Neurrien Legearen eraginkortasunerako koordinazio-protokoloen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eremuan, biktimei arreta zuzentzeko zerbitzuen eta gainontzeko eragileen koordinazioa hobetzea –arreta emateko zerbitzu bezala zein babesteko aginduak koordinatzeko zentro bezala–.
- 4.23. Erakundeen arteko elkarlana sustatzea, genero-indarkeriako delituen ondorioz zigortutakoak tratamenduan jartzeko baliabideak ezartzeko.

5. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

- 5.1. Tratu txarren aurrean osasun-protokoloa hedatzeko eta sistematikoki aplikatzeko 2006. urtetik aurrerako Kontratu Programetan lehentasunezko eskaintza bidez eginiko ebaluazioekin jarraitzea.
- 5.2. Informazioa biltzeko sistema egokitzeko prozesua mantentzea, Osakidetzako ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako kalitatezko datu zehatzak izateko.
- 5.3. Etxeko tratu txarren kasuetarako Osasun Protokoloa berraztertzea eta egokitzea.
- 5.4. Behin aurreko ekintza burututa, Protokolo berria argitaratzea eta banatzea.
- 5.5. Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin aldiari behin bilerak izatea, Euskadiko Osasun Protokoloa aplikatzean izan daitezkeen balizko arazoak antzemateko eta horiek zuzentzeko neurriak hartzeko.
- 5.6. Tratu txarrak garaiz antzemateko eta osasunaren arloan nola jokatu jakiteko heziketa moduluak diseinatzea medikuntzako eta erizaintzako profesionalentzat (ikastaroak, tailerrak edota saio klinikoak).
- 5.7. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak adostutako eta Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartutako materiala osasun langileen eta pazienteen artean banatzea.
- 5.8. 2007ko Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Egunean parte hartzea.
- 5.9. Erakunde guztientzako komunak diren neurriak hartzen eta aplikatzen parte hartzea.

6. EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- 6.1. Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren eta Jarraipen Batzordearen lana sustatzea eta koordinatzea.

- 6.2. Erakundeen Arteko Akordioa berraztertzea, 2001ean sinatu zenetik legegintzan izandako aldaketetara egokitzeko.
- 6.3. *Emakumeen Aurkako Indarkeria* Txostena eguneratzea. Bertan, besteak beste, Erakundeen Arteko Akordioaren eremuan Jarraipen Batzordeak eta Talde Teknikoak landutako jarduerak biltzen dira.
- 6.4. Emakunderen webguneko *Emakumeen Aurkako Indarkeria* atala aldiro-aldiro eguneratzea eta osatzea, Erakundeen Arteko Akordioaren baitan egindako jardueren informazioa emateko eta Jarraipen Batzordearen zein Talde Teknikoaren lana ezagutarazteko.
- 6.5. Deustuko Unibertsitateak antolatutako Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko Masterra laguntzea, irakasle izanez eta ikasleei bekak emanez.
- 6.6. Erakunde publikoei zein pribatuei aholkularitza teknikoa ematea akordioarekin lotutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeke.
- 6.7. Beste erakunde batzuek Akordioaren inguruan antolatutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea.
- 6.8. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioari eta Emakumearen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Gobernuaren Ordezkaritza Bereziari Erakundeen Arteko Akordioaren baitan egindako jardueren berri ematea. Horretarako, txostenak egingo dira eta koordinazio-bileretan parte hartuko da.
- 6.9. Emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko nazioarteko egunean (azaroaren 25) erakundeen artean bultzatuko den sentsibilizazio-kanpaina sustatzea, koordinatzea eta finantzatzea.
- 6.10. Azaroaren 25eko egunaren kariatara Berdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko udalerrien sarea) antolatutako sentsibilizazio-kanpaina laguntzea.
- 6.11. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei aurre egiteko erakundeen erantzun-protokoloa koordinatzen eta ezartzen parte hartzea.
- 6.12. Institutuaren diru-laguntzen dekretuetan emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko eta prebenitzeko jarduerak antolatzeari eta biktimak laguntzeari lehentasuna ematen dioten balorazio irizpideak sartzeari.
- 6.13. Berdinsarean (Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) tokian tokiko protokoloen inguruko lantaldeak garatzea.
- 6.14. Gizarte-zerbitzuen eremuan datuak biltzeko sistema bateratua eratzeke koordinazio eta sustapen-lana jarraitzea.
- 6.15. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, aurreikusitakoa betez, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak laguntzeko programa arautuko duen dekretua izapidetzen jarraitzea.

- 6.16. Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokia laguntzea eta bertan parte hartzea.
- 6.17. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 51.2 artikulua ezarritakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta bitarteko judizialen zein polizialen eraginkortasuna eta irismena ebaluatzea.

7. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 7.1. Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei aurre egiteko jokaerak hobetzeko gidak, protokoloak eta materialak egiteko eta hedatzeko lanetan parte hartzea, hala adosten denean.
- 7.2. Beste erakunde batzuek akordioarekin lotuta antolatzen dituzten heziketa eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak...).
- 7.3. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina diseinatzen, finantzatzen eta zabaltzen parte hartzea, betiere egin beharreko jarduerak alde aurretik ezagutzen badira eta parte-hartze ekonomikoa proportzionalki ezartzen bada.
- 7.4. Biktimentzako laguntzen eta indarkeriaren zikloaren inguruko sentsibilizazio, informazio eta hedapen-jarduera egitea azaroaren 25ean, bereziki Arabako landa-eremuetako herritarrei zuzenduta. Helburu nagusia herritarrei garaiz antzematen erakustea eta laguntzaile bezala joka dezaten lortzea da.
- 7.5. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.
- 7.6. Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio-bileretan parte hartzea.
- 7.7. Gizarte-zerbitzuetan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartzea.
- 7.8. Arabako lurralde historikoan erakundeen arteko koordinazioa areagotzeko mahai lurraldetarra eratzea eta protokoloaren jarraipena egitea.
- 7.9. Emakumeen aurkako indarkeriaren arreta eta prebentzio-zentro integrala sortzeko Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Gasteizko Udalak onartutako proiektua garatzea eta abian jartzea.
- 7.10. Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzu espezializatuak ematen jarraitzea: biktima izandako emakumeei eta erasotzaile izandako gizonei arreta psikologikoa, emakumeentzako orientazio juridikoa, tratu txarren biktimekin lotutako prozesu juridikok jarraitzea, harrera-etxeak, heziketa eta

akonpainamendu-programak harrera-etxeetan zein beraien etxeetan dauden emakumeentzat.

- 7.11. Arreta espezializatuko zerbitzuak eta genero-indarkeria kasuetako arretarekin, prebentzioarekin eta koordinazioarekin lotutako beste jarduera batzuk garatzeko Gasteizko Udalarekin sinatutako elkarlanerako hitzarmena luzatzea.
- 7.12. Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen arreta hobetzeko Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Abokatuen Elkargoak sinatutako elkarlanerako hitzarmena garatzea eta luzatzea.
- 7.13. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Clara Campoamor Elkartek emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko sinatutako elkarlanerako hitzarmena garatzea eta luzatzea. Hitzarmenak genero-indarkeria jasan duten emakumeei eta adingabeei arreta psikologikoa, juridikoa, hezkuntzakoa eta soziofamiliarra emateaz arduratzen diren profesionalentzako heziketa-proiektu bat gauzatzea ahalbidetzen du.
- 7.14. Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduan esku hartzeko protokoloaren araberrako beharrezko koordinazioa garatzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen eremuan.
- 7.15. Genero-indarkeriarekin lotutako heziketa, sentsibilizazio eta prebentzio-jarduerak diruz laguntzea, 2007ko ekitaldiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen deialdien bidez.
- 7.16. Gizarte Zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalak genero-indarkeriarekin lotutako esku-hartze jarduera zehatzetan hezte. Helburua, indarkeria-zikloa garaiz antzematea eta indarkeria fisikoa zein autoindarkeria prebenitzea da.
- 7.17. Gasteizko Udalarekin indarrean dagoen elkarlanerako hitzarmenaz baliatuta, 2005ean berrargitaratutako *Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gida* banatzea eta, beharrezkoa izanez gero, eguneratzea.
- 7.18. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailaren arteko hitzarmena luzatzea eta garatzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa pilotu bat diseinatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko. Programaren helburua etorkizunera begira Arabako lurralde historikoan sexua-generoa sistemaren gaineko hezitzaileak izango direnak trebatzea da.
- 7.19. Arabako Foru Aldundiaren eta San Prudentzio Lan Fundazioen arteko hitzarmena luzatzea eta garatzea, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei enplegua bilatzean tutoretza emateko proiektua gauzatzeko.
- 7.20. AMAPASEkin elkarlanerako hitzarmena sinatuta, prebentzio-programa bat egitea, emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko. Horretarako, sentsibilizazio eta informazio-kanpainak egingo dira, bereziki landa-eremuetan. Era berean,

heziketa-jarduerak ere burutuko dira. Bikoteen arazoak eta gatazkak konpontzeko moduak aztertuko dira jarduera horietan, eta helburu inplizitua hurrengo izango da: emakumeek indarkeriaren zikloa ezagutzea eta, biktimak izanez gero, beren burua ziklo horien barruan ikusteko gai izatea.

- 7.21. Udal jardueraren protokoloak garatzeko ildoak lantzea, etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei tokian tokiko arreta hobetzeko. Arabako landa-eremuetako errealitatea ere kontuan izango da.

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei eman beharreko arretaren eta erakundeen arteko akordioaren inguruko heziketa eta sentsibilizazio-jardueren diseinuan eta irakaskuntzan parte hartzea.
- 8.2. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia Osoko Bilkura eta genero-indarkeriaren adierazleen lantaldea burutzen ari diren lanari jarraipena ematea. Lantaldeak Bizkaian dihardu, eta organoa osatzen duten erakundeetako hainbat ordezkari osatzen dute. Hurrengoak dira bere egitekoak: informazioa biltzea eta Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta hobea emateko onartutako datuak biltzeko fitxak hedatzea. Fitxa horietatik abiatuta, datuak zentralizatzea eta uneotan diseinatzen ari den datu-base batean sartzea da helburua. Horrela, genero-indarkeriak Bizkaiko lurralde historikoan duen egoera ezagutu ahal izango da, datu fidagarriak eta homologagarriak izango dira, eta datuak denbora eta espazioan alderatu ahal izango dira.
- 8.3. Bizkaiko Baliabideen Atlas argitaratzea, garatzea eta eguneratzea, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia webgunerako. Baliabideen Mapan jasotzen den informazio guztia garatu eta grafikoki irudikatzen da Atlasean. Herri, eskualde edo azpieskualde bakoitzean dauden zerbitzuak deskribatzen eta izendatzen ditu Baliabideen Atlasak, genero-indarkeria jasan duten Bizkaiko emakumeen beharrei emandako erantzun instituzionalaren hedapena eta izaera irudikatzeko asmoz.
- 8.4. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko dauden gizarte-zerbitzuen inguruko informazioa biltzeko datuak jasotzeko sistema automatizatua diseinatzea. Datuak udaletakoak, mankomunitateetakoak zein Aldundikoak izan daitezke, baina betiere 2006 urtekoak.
- 8.5. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei emandako arretari dagokionez, gizarte eremuko datuak biltzea. Horretarako, aurreko atalean aipatutako datuak biltzeko

sistema automatizatua erabiliko da. Prozesua Eudelekin koordinatuko da eta informatzaileen sarea egonkortu egingo da.

- 8.6. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumea eta Familia Zerbitzuko webguneko Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia ataleko edukia aldiro-aldiro eguneratzea eta areagotzea.
- 8.7. Emakumeei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuan lehentasuna ematea harrera eta aholkularitza juridikoa zuzenki ematearekin lotutako balorazio irizpideei.
- 8.8. Etxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeei eta beren seme-alabei zuzendutako larrialdietarako harrera zerbitzua giza baliabide zein material gehiagorekin indartzea. Helburua berehalako harrera eta 24 orduko arreta pertsonal espezializatua bermatzea da. Horretarako, akonpainamendu-zerbitzuak eta larrialdiko harrerari dagozkion behar adinako segurtasun-neurriak ezarriko dira.
- 8.9. Emakumeen aurkako etxeko indarkerian espezializatutako interbentzio-programa familiarra indartzea. Programak laguntza psikosoziala eskaintzen die indarkeria jasan arren erasotzailea bizi den etxean jarraitzea edota bertara itzultzea erabakitzen duten emakumeei, baita horrelako familietan bizi diren adingabeei ere. Horretarako, erabakiak hartzeko gaitasuna eta aurre egiteko bitartekoak landuko dira programan parte hartzen dutenekin. Programa aldatuta, askoz ere kasu gehiagori eman ahal izango zaie arreta. Era berean, erasotzailearen bizikidetza apurtu arren, berriz ere elkarrekin bizitzen hasteko arriskua duten emakumeen kasuan balizko interbentzio-aukerak hedatzea lortuko da.
- 8.10. Lehiaketa publiko bidez esleitutako Familia Bilgunea zerbitzua indartzea. Horretarako, handitu egingo da zerbitzua emateko erabiltzen den lokala; izan ere, egungo lokala 70 m²koa den arren, 250 m² erabiltzeko moduan daude. Horrenbestez, hiru areto berri egingo dira eta programan lan egiten duen profesional kopurua handituko da. Horretarako, luzatu egingo da indarrean dagoen kontratua, eta kontratazio prozedura berria sustatuko.
- 8.11. Arreta Espezializatuko Familia Bilgune Programa diseinatzea eta abian jartzea. Programa Hautzaro Zerbitzuan dauden eta egoitza edo familia batean aldi baterako edo modu iraunkorrean dauden haur eta nerabeei dago bereziki zuzenduta, baita adoptatu aurreko familia-harreran daudenei ere. Programak kasu bakoitzaren beharretara egokitutako ikuskapen eta esku-hartze espezializatua eskainiko du. Horretarako, Psikologian lizentziatutako lantalde profesionala izango du. Programa gauzatu ahal izateko, kontratazio-prozedura bat jarriko da abian.
- 8.12. Azaroaren 25eko erakundeen arteko sentsibilizazio-kanpaina finantzatzen parte hartzea.

- 8.13. Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei eta sexu-erasoei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa aplikatzen parte hartzea.

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- 9.1. Gizarteratze Zerbitzuan prestazio ekonomikoen partida mantentzea Oinarrizko Errenta, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa edota Gizarte Larrialdiko Laguntza bezalako araututako diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten tratu txarren edota sexu-erasoen biktimentzat.
- 9.2. Harrera-etxeak mantentzeko eta zaharberritzeko inbertsio-plana gauzatzea.
- 9.3. SOS DEIAKekin, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin bilerak egitea, Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren koordinazioa hobetzeko.
- 9.4. Eskualde mailako bilerak egitea Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuarekin jokaera protokoloak ezartzeko.
- 9.5. Genero-indarkeriaren arloan Udaletako gizarte zerbitzuak aholkatzea, informatzea eta beraiekin elkarlanean aritzea.
- 9.6. Ekiteko protokoloak prestatzeko lanetan parte hartzea, erakundeen arteko elkarlana hobetzeko.
- 9.7. Heziketa-plan bat prestatzea.
- Kanpokoak: udaletako gizarte-zerbitzuei zuzendutako heziketa-jardunaldiak
 - Barrukoa: berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren gaineko heziketa Foru Aldundiko langileentzat.
- 9.8. Giza Eskubideen Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren sentsibilizazio-kanpainaren barruan jardunaldiak antolatzea. Jardunaldietako agiriak eta materialak interesa duten pertsona guztien eskura izango dira Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritzaren webguneko Dokumentuak atalean (www.egokilan.net).
- 9.9. Autonomia mailan, Akordioaren Jarraipen Batzordean, Erakundeen Arteko Talde Teknikoan eta dagokien azpibatzerdeetan parte hartzea.
- 9.10. Lurralde mailan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin, Orientazio Juridikoko Zerbitzuarekin, Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoekin egin beharreko koordinazio-bilerak sistematizatzea.
- 9.11. EUDELe emakumeen aurkako indarkeriaren arloan deitutako bileretan parte hartzea.
- 9.12. Bildutako informazioa sistematizatzea ahalbideratzen duten datuak biltzeko fitxa-sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartzen jarraitzea.

- 9.13. Emakundek sustatutako azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpaina finantzatzen eta hedatzen parte hartzea.
- 9.14. Genero-indarkeriak eragindako heriotzak izatean, protokoloa aplikatzea.
- 9.15. Erakundeen Arteko Akordioa aplikatzeko egindako jarduerak ebaluatzea.
- 9.16. Genero-indarkeriaren biktimei eta epai judiziala jaso duten erasotzaileei arreta psikologikoa emateko programaren kanpoko ebaluazioa egitea.
- 9.17. EAEko arreta psikologikoko programen ereduak ebaluatzea, Agintzari elkartearekin elkarlanean.
- 9.18. Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteei eta emakumearen aurkako indarkeriaren eremuan prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzen dutenei diru-laguntzak areagotzea Gizarte Ekimena Laguntzeko Planean.
- 9.19. Giza Eskubideen Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren webgunea eguneratuta izatea.

10. EUDEL - EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

- 10.1. EUDELen webgunean bidez, Erakundeen Arteko Akordioa eta EUDELeke ordezkaritza duen gainontzeko partaidetza-organoetan garatzen eta lantzen diren protokoloak zein jarduerak ezagutaraztea.
- 10.2. Legezko xedapenen ondorioz ezarritako eta adostutako jarduerak abian jartzen dituzten udal-langileak hezteko guneak proposatzen jarraitzea.
- 10.3. EUDELeke eta HAEEEK sinatutako hitzarmenaren barruan, indarkeria jasaten duten emakumeekin lan egiten duten udal langileentzako heziketa-eskaintza osatzea. Horretarako, etxeko indarkeria edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko tokian tokiko protokoloak lantzeko bigarren ikastaroa eskainiko da.
- 10.4. *Etxeko tratu txarrak edota sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko tokian tokiko protokoloak abian jartzeko jarraibideen gida* hedatzen jarraitzea.
- 10.5. Udaletako teknikarien arteko topaketak antolatzea, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako baliabideen, zerbitzuen eta prebenitzeko metodoen inguruko esperientziak eta hausnarketak elkarri ezagutarateko.
- 10.6. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal baliabideen Arabako eta Gipuzkoako mapa amaitzea eta eguneratua mantentzea.
- 10.7. EUDELen webgunearen bidez, Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal baliabideak ezagutaraztea.

- 10.8. Aurkezten diren lege-ekimenak eta gainontzeko testu arau-emaeleak aztertzea, hobetzeko ekarpenak eta oharrak egiteko.
- 10.9. EUDELen baliabidearen bidez, gizarte-zerbitzuetan babesteko agindua ezartzeko protokoloa hedatzea.
- 10.10. Datuak biltzeko sistema bateratua tokian toki aplikatzeko sustapenean parte hartzea, kasuen aurrean hobeto koordinatuta aritzeko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko.
- 10.11. EUDELen webgunearen bidez, etxeko indarkeriak eragindako heriotzei edota sexu-erasoei erantzun instituzionala emateko protokoloa ezagutaraztea, eta protokoloaren aplikazioan parte hartzea.
- 10.12. EAEn abegirako dauden baliabideak koordinatzeko protokoloa egiten parte hartzea.
- 10.13. Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko udalerrien sarea (Berdinsarea) sendotzea.
- 10.14. Erakundeen arteko akordioan aurreikusitako batzordeetan eta azpibatzerdeetan parte hartzea.
- 10.15. Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean (azaroaren 25) erabiliko diren produktuak diseinatzea eta Euskadiko udalen esku jartzea.
- 10.16. Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunerako (azaroaren 25) adierazpen-eredua prestatzea eta Euskadiko udalen esku jartzea.
- 10.17. Europako «Stop Domestic Violence Against Women» kanpainarekin elkarlanean aritzea.